

**ZENBAT BURU**
Amaia Urzelai

**ERREPORTAJEA**
Gorka Mujika
*San* Ferminetako
entzierroan

**GEHIGARRIA**
TxikiBARREN

**KULTURA**
'Arima Beltza'
musika talliefren
lehe[redacted]an

# BARREN

2000ko uztailaren 7a
VIII. urtea - **328. zkia**
ELGOIBARKO ASTEKARI[redacted]

# Gorka Mujika:
# Sa[redacted]inetako en[redacted]ak bizi-bizian

"Zezena indartsuago, adarkada handiago" (Esaera za[redacted]a)


Lanbroa
BERRITUA
GOIZFKO 7.0npt?r, 7ARA1 T7FN IGU
ASTELEHENETIK OSTIRALERA
Betikn pintX0ez gain,
Gosariak
Postreak
Bokadiloak
PLATER KONBINATUetan
aukera zabala
Pedro Muguruza, 5 9 Tel. 943 74 08 06 9 Elgoibar


AUTO-ESKOLA
Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak
GIDARIAK
%10eko deskontua
Gazte Txartelarekin
San Frantzisko, 43-1. — Tel: 943 74 27 20 — ELGOIBAR
Ego-gain, 2 behea (sarrera S. Andres
— Tel: 943 20 34 45 — EIBAR



AMAIA URZELAI

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, plurallasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

# Telegidatuak?

Aspaldi hasi zan D eredua goraka eta A eredua beheraka egitten gurian. Horrek, beste gauza batzuren artian, euskeria inporta jakula esan nahi dau nere ustetan. Euskal Heřrittik irten naizen bakoitzian, askotan entzun dittut gure herriko hezkuntzaren kontrako komentarixuak. Askotan, eta aspaldidanik. Orain, katedratiko bat eskola euskaldunetan erakusten dan historia, gizurretan oinarritzen dala, faltsua dala eta horrekin gaztiak bide txarrera, deabruarena bideratzen diazela esaten dabil toki guztixetan. Zenbat istorio asrnatu dittuzte, eta zenbat asmatuko dittuzte'? Argi daukat, Euskal Herrixa desagertu arte, jo ta ke arittuko diazela gure kontra. Ez dabe eurongandik ezberdin pentsatzen daban jenderik nahi. Ez dabe pentsatzen daban inor nahi. "Se busca personai cualificado (preterentemente zappinizado y/o desHobby.ado) para crear una grande y unida".

**"Se busca personal cualificado (preferentemente zappinizado ylo desHobbyado) para crear una grande y unitia"**

Argi daukat, gure etxeko butaketan gelditzen bagera, euron helburua lortuko dabela. Ez dot uste, eurok gure eskoletako historiaren irakaskuntzaz esandakua montaje bat dala jakitiarekin lasai gelditzerikan dakagunik. Asmatu daben hori, asmatzen dittuzten kontu guzti horiek, gizurra dirala uste badogu, esan biharra dakagu. Kontu horrek danak sinisten dittuan jendiari, gure egixa erakutsi bihar diogu. Pluraltasuna egon dadila sikiera!! Pluraltasunak ahotsa izan dezala.

Azken egunotako Euskal Herriko historiaren kontu honek, Elgoibar Euskal Herrixan daguan herri bat dala ahazten hasi jakula pentsa arazi ditt. Elgoibartarron esku dago, horrela jarraittu nahi dogun ala ez erabakitzia. Bakoitzak erabaki biharko dau Tele 5 eta Antena 3 modukuetan oinarritzen dan bizitza eta bizitzarekiko ikuspuntua nahi daban ala euskal kontzientzia bat nahi daban.

Zapping egitiaz gain, beste gauza asko egiterik badago. "bizitza tinba bada ere, nik ez dut zortean sinisten, karta onak ez dira iristen, eta jolasten ikasi behar da!! esaten dau Joxe Ripiauk kantu batian. Eskolatik eta lanetik irten eta gerorako, jolasak daoz. Edade guztixentzakuak daoz. Gure denbora brian gauza majuak egiteko, nahi doguna bilatzen hasten bagera, topatuko dogu. Danetik dago, eta ez daguana sortzia ere, politta izaten da.

Euskal Herrixa, txikixa eta atraktibua da, oso atraktibua, ikusi nahi dabanarentzako. Baina jaio, bizi eta hil biharrian; jaio, aguantatuierresistidu eta hilko al gera?

Pentsatu, eta Elgoibarren, mugitzen diazen gauzak badaozela jakin. Batez ere, mugi tzeko gogua dakaben norbanakuak, taldiak eta kolektibuak daozela jakin. Jakin, eta nahi dozuna, zuk elegidu. Zuk nahi dozulako, ez ohitturiagattik, edo erretzena dalako. Ikusi ondoren, egin nahi dozuna hori dala elegidu dozulako.

## Barrak, Birrak eta Barreak



# BaRREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**

**943 74 41 12**

Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila: barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.ihardun.com/barren

| | |
|---|---|
| ARGITARATZAILEA | Elgoibarko Izarra |
| LAGUNTZAILEA | Elgoibarko Udala |
| ZUZENDARIA | Eli Aizpuru |
| KAZETARIAK | Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea |
| PUBLIZITATEA | Andoitz Agirregomezkorta |
| MAKETATZAILEA | Bea Ansola |
| ADMINISTRAZIOA | Amaia Martin |
| BERENTZIA | Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste, |
| KOLABORATZAILEAK | Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, I doia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imand Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñlgo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre. |
| BANAKETA ARDURADUNA | Imanol Larrañaga |
| EUSKARA ZUZENTZAILEA | Ibon Arriola |
| INPRIMATEGIA | Gertu Koop. E. |
| TIRADA | 4.000 ale |
| LEGE GORDAILUA | SS-1.038/92 |
| ISSN | 1139-1855 |

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sadak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*



12~11111111~

*gizarte-ekintza*
*EKobra sacial*

'ADANOBAT

41 GOITI
GRUPO DANOBAT


# E S KUTITZAK

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.
Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko.
Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.

2000-VII-7



# BAI, ESAN?

## Karlos Aso_la Institutuko Kalitate Arduraduna

*Elgoibarko Institutuak ISO 9002 agiria lortu du hiru batxilergo eta Lanbide Heziketan. Atdrrerapauso garrantzitsua da hau, Estant osoan hiru batxilergoen zertifikazioa duen bakarra haita. Sei ikastetxe giintzkoar aritu dira lanean eta horietatik hiruk lortu dute*

*Hala ere, Elgoibarkoa da lantegi hau euskaraz egiteko konpromiso hartu duen bakarra. Guk Karlos Ansolarekin, Kalitate Arduradunarekin, hitz egin dugu hori buruz zertxobait gehiago jakin ahal izateko.*

**- Zer da ISO 9002?**
- Kalitateko ikastetxea garela bennatzen duen ziurtagiria da. Guztia idatzita dago, kontua ez da kalitatea dugula adieraztea bakarrik, hori ziurtatzea baizik. Eta guk idatzita dagoena betetzen dugula ziurtatzen dugu. Hori garrantzitsua da.

**- Zenbat denbora pasa duzue Ianean agiria lortu arte?**
- Hiru urte dira ISO 9002 lortzeko ahaleginak egiten hastea pentsatu genuela, baina iaz hasi ginen buru-belarri eta aurten azkenean, lortu dugu.

**Zer nolako garrantzia du zuentzat hori lortzeak?**
Orain betebeharreko guztia pIanitlatuta daukagu. Norberak kontrolatzen du bere lana, guztia idatzita dago. Asteroastero planifikazioa egin behar dugu. Lehen hori egitea izugania zen gtmetzat. Orain betTiz, programazioaren jarraipena egitea da kontua. Konserjearengandik hasi eta zuzendariarenganainoko betebeharrak zehaztuta daude.

**- Zer eragin izango du honek ikasleengan?**
- Onerako izango da. Orain zuzenketairizpideak, kalifikazio sistema eta hoƖrelakoak guztiz zehaztuta baitaude. Ez dago irakasle gogor cdo bigunik, arau batzuk jarraitzen dituena baizik. Bestalde, ikasleari hemen sartu eta irteten den bitartean jarraipena egingo zaio. Honen alde txarra burokratizazioa izan Iiteke, baina erreklamazio orriak ipini ditugu baita ere, eta orokorrean, ikasleak oso gustura daude.

**- Lantegi honetan jarraitzeko asmorik ba al duzue?**
- Bai, hau lehenengo urratsa besterik ez da, lanean jarraitu behar dugu eta poliki-poliki eskola osoan kalitatearen bermea ezarri. Momentuz hurrengo lau urteetarako Plan Estrategikoa ere egin dugu.

**Jendeak ikastetxe baten horrelako ezaugarriak kontutan hartzen al ditu?**
- Oraindik goiz da hori esateko. Agiri honek garantia bat ematen du. Gainera, kontutan hartu behar da irakaskuntzan zailagoa dela hau lortzea, pertsonekin lan egiten dugulako eta ez produktuekin.





DEKORATZA1LEA
Aintiane Conzalez Roa

**PROIEKTUAK**
**ERREFORMAK**
**DISTRIBUZIO PLANUAK**
**DEKORAZIO AUKERAK**

**tr 656 411 548**

**Pedro Muguruza etrb. 5, 1.E**
**Kolegiatu zkia. 5978**

*Gorka Mujika, 27 urteko eigoibartarra Gazteen Musika Bandako zuzendaria izateagatik izango duzue ezagun askok Elgoibarren, baina aste honetan, zaletasun bat medio ekarri dugu gure artera. Izan ere, Gorkak San Ferminetako entzierroak urtero korritzen ditu Iruñean, duela 8 urte lehen aldiz egin zuenetik. Entzierroak korritzean zer sentitzen den jakiteko ausardia nahikorik ez dugunez, Gorkak esandakoaren arabera nolabaiteko ideia bat egin dezazuela da gure asmoa. Mundu osoan ezagunak dira San Fermin jaiak, eta batez ere entzierroak. Guk elgoibartar baten ikuspuntua zuenganatuko dizuegu entzierroak hurbilagotik ezaguizeko aukera izan dezazuen.*

## GORKA MUJIKA

# SAN FERENETAKO ENTBEI

Uztailaren 7a inguratu ahala, goizero San Ferminetako entzierroa telebistaz ikustera jaikitzen ziren miktka pertsonetako bat zen Gorka Mujika. Egun lyatez, ordea. etxeko sofaren lasaltasuna alde batera laga eta askok amestu, Imina gutxi ausartzen cliren erahakia hartu zuen Gorkak, entzierroak zuzenean, bertatik betttra korritzea, alegia. 19 urte zituen orcluan. "Sokamuturrian ibiltzia eta San Ferminetako entziermak beticlanik gustau izan jataz, eta duela 8 urte probatzia erabaki naban". Hasieran goizeko 6:00etan jaiki, Inthera joan. entzierroa korritu eta bueltatu egiten zen, Gorkarena artzio hutsa bita. Gaur egun, berriz, uztailaren 6tik 14ra bitartean egoten da 1ruñean, txaranga batean jotzen baitu, Astektkaeretakoak izan ezik, beste entzierro gutttak korritzen

### WIENBIGO INPRESIOA: BELDURRA

Telebistatik entziemmk ikusteak eta bertan egoteak ez claukate antzik, noski. "Lehenengo entzienuan parte hanziak inpresio haundixa eitxen dau. Izugarrizko biklurra sentitxu nabala akorclatzen naiz. Paretan kontra ajx)iauta ikusi naban lehenengua" aipatu digu Gorkak. "Bildurrak bildur. asko gustau jatan esperientzia, eta berriz hueltatzia erahaki naban". Harrigarriena zezenen tamaina izan zela esan digu, "zezenak oso haundixak dia, sokamuturran irtetzen dianen halako bi gutxienez. Besralde, entzierrua korritzeko prest dauan jende multzuak ere inpresitm eiozen dau. Atzerritar pila bat eoten da, eta gehixenek, gainera, ez dakite tutik ere entzierruei buruz. Pentsaizue, atzerritar batek entzierruan nontbidia detu zian behin".

### ZHIGATIK KORRIKA EGIN ENT7JERROAN?

Gorkaren iritziz, behin probatzen duenak eirepikatu egiten du: "Zezenen oncluan jutia lortzen badozu gozada bat da, probatu daben nere lagunek errepikatzia nahi izan dabe, Hor gabiltzanon helbunta zezenan adar aurrian korrika eitxia da, baina oso ona izan bihar da hortarako eta ausardia haundia euki. Nik albuan jutiakin nahikua dakat, baina esperientzia gehixao hartu ahala hobetzen jungo naiz. Enzierruetan poliki hastia korneni cla, eta esperientziakin ikasiz juatia".

**"Zezenen onduan jutia lortzen badozu gozada bat da. Hor gabillzanon helburua zezenan adar aurrian korrika eitxla da"**



*Gorka uJik zlEs retil• hasita bigarr , 19 arierekin hasi zen entzierroak rritzen. griftu tebuk ere(aka en ak kenduta, beste guzlietan hartzen du parte.*

## ENTZIERROAN KORRIKA EGITEKO ARAUDIA

***Entzierroak oso arrislattsuak izan daitezke. Ifort dela-eta, araudi zehatza jarratto behar da beraletan parte hartzeko:***

**)18 urte baino gehiago izatea.**

**Zezena ikutzea debekatuta dago.**

**Zezenak datozen norabidean edo zezenen atzetik korrika egitea debekatuta dago.**

**Zezena atzean geratzen bada, debekatuta dago zirikatzea edo xexatzea.**

**Motxila soinean dela korrika egitea debekatua dago.**

**Argazki eta bideo kamerak debekaturik daude.**

**Entzierro gune barruan izkina batetik entzierroa jarraitzea debekatuta dago.**

**Zezen Plazara sartzean armailetara igo behar da.**

**Segurtasun gutxi eskaintzen duten objetu edo lekuetara igotzea debekatuta dago.**

**Arropa eta oinetako egokiak eraman behar dira soinean.**

**ITURRIA: IRUÑAKO UDALA**

# ROTAN KORPIKA EGITEN DUEN ELGOIBARTARN

## ESTAliTA 1M(0 LAGUNAK

Gorkak Estafeta kalean egiten du .saltaka. "Estafetako errebueltia baino gerotxuo hasi, eta ahal dotenemino juten naiz". Korrikalari bakoitzak urtero ibilbide bera egiteko (thitura izaten ciu gehienetan. llori dela-eta, leku berdina aukeratzen duten korrikaiarien artean detasuna sortzea ohikoa izaten da. Gorkak ere hadu here koadrilatxoa, "Nere leku berdinetik, adihidez, Reaiian aurrelari moduan denboraldi batez jokatu zaban Belloso urtetzen da. Nerekin konparauta oso korrikalari ona da. I)ehako bi anaik ere nere ibilbide herdina eitxen dabe, hauek ere oso onak dia. Ligun guztixak taberna hatian elkartzen gera entzierrua bukatzen danian. Gosaldu, errepikapena telehistaz ikusi, eta ia inor falta dan ikusten dou".

## MARA ASKOTAKO KORBIKALABIAK

Gorkak azaldu digunez. maila desherdinak daude konikalarien artean. Mailarik gorenean, "Los Divinos¯ bezala ezagunak diren konikalariak leudeke, "zezenan aurrian ibiltzen dianak dia, telebistan beti elkarrizketatzen clitxuztenak. Julen Madina da adibiderik argixena, entzierruak jarraitzen ditxuztenek seguru emutuko dabela. Jende askok ez ditxu gogoko, 1yaina zezenan aurrian jartzen dianian oso onak dia, ixa dana kontrolpian clake. Elkani zezenak eskatzen dizkiote trehezia hatinclia clake-eta".

## MUNDU TXBO BAT

Entzierroek oso gutxitan iratiten clute 4 minutu baino gehiago, baina here lahurmsunean ere mundu hat izkutatzen dela ititortu digu Gorkak. eta tnmpa asko izaten dia korrikalarixen artian, zangotrabatziak ohikuak dia. Ditnek nahi clabe zezenan autrian jutia eta ezin badabe hankia sartzen dabe. Batek bestiari zezena Xendu ziola-eta, hurruka hat ikustia ere tokatt jatan. Tentsitia izugarrixa cla". Entzierroa hasi haino lehen korrikalditxoak eta beroketa saloak egitea lasaigania dela itipatu digu, "nerbbatak gainetik kentzeko aproposak dia beroketak. Gainera, komenigarrixa da, sprint hiolentua eta esplosibuit ein hihar dalako",

**"Trikimailu eta tranpa asko izaten dia koppikalarixen artian, Danek nahi dabe zezenan aurrian jutia eta ezin badabe hankia sartzen dabe"**

## Urduritasuna hasi aurretik

Zezenak ukuilutik irten aunktik 3 abesti kantatzen dira Santo Domingoko aldapan San Fermin santuaren omenez. Gorka eta here lagunak lehenengo abestian pane hanu ostean, Fstafeta kalera joaten zezenei itxoitera, Urchuitasun gehien bide hori egiten cluen hitartean pasatzen duela aitortu digu. "pultsazioak topera jartzen dia. Korrikalarixen artian izuganizko hurrukia eoten da posiziva eskuratzeko. Entzierma bukatzen clanian konturatzen zera hartutako golpe eta ukaloncloko guztiekin. Horrenbestektra da tensitia, momenman ez dozula minik sentitzen. Dana dala, jendia arriskutsua da, baina ez dizu zezenek ein leiken aberixarik eingo. Zezenekin kocrika ein nahi dogunok bazterrkm itxoin bihar izaten dou. Paretan onduan jartzen gera eta liki-poliki kale erclira inetzen gera. Beti lehenengo zezenan amTian jartzen saiatzen naiz".

## SUSTOAK Bffi SUSTO

¯Susto graherik ez dot sekula izan, baina zezenan aurrian jaustia eclo barreran sartu nahi izatia eta beteta topatzia bezelako sustuak normalak clia" aipatu digu. Adarkadak genutik ikustea ere tokatu zaio, "leheng) urtian, adihidez, nere onduan zauan bati belaunian sunt zion adarra zezen hatek, inpresio handixa eitxen clau".



*GorillikfrEstafeta kalean korritzen beti. 7 urie danunatzahku berdinetik atera'tzest.ida lagtrnakere egin ditu.*

**PASA DEN ASTEAN 'ESPAINIAKO HISTORIAKO AKADEIVIIA`K HISTORIA IRAKASGAIARIARI BURUZKO THOSTENA ARGITARATU ZUEN. ZENBAIT ADIERAZPENEK POLEMIKA IZUGARRIA SORTU ZUTEN.**

# ZER DIOTE ELGOIBARKO IKASTETXEETAKO IRAKASLEEIf?

*Espainiako Historiako Akademiak historiaren irakaskuntzari buruzko iker-lan bat aurkeztu zuen pasa den astean. Txosten horretan Autonomia Erkidego desberdinetako hezkuntza sistemak aztertu zituzten. Polemika gehiena, ordea, Ikastolek arrazakeria eta bazterkeria bultzatzen dituztela adierazi zutelako sortu zen. Astebete pasa ondoren, hasierako berotasunak baretu dira. BARRENen gai hau alde batera ezin genuela utzi-eta, Elgoibarren, hezkuntza mailan, gai hau nola hartu den jakin nahi izan dugu. Bertako ikastetxeetako historiako irakasleekin egon gara (DBH mailakoak, hain zuzen ere, txostenean hauek hartu baitziren eredutzat). Hauek dirajaso ditugun iritziak.*

## "Ez gara identifikatuta imsten acherazpen horieldn. Gure kasuan, ez dugu uste egia denfit akademikoek esan dutena". ITHAR ONDARRA eta PAKE GARZIA. Ikastolako irakasleak.



tm astolakoak dira agian, gai honekin gehien indu direnak. Beraiengana jo dugu eta argi a garbi utzi nahi izan dutena zera da. "DBH guztian lantzen ditugun gaiak tolerantzia eta pakea dira, beste batzuren artean, eta ez txostenean azaldu dutena. Alderantziz, justu kontrakoak".

Pakek dioenez historiako irakasgaia ez da beste komunitate batzuetan bezala lantzen, "komunitate bakoitzak bere ikuspegitik hanzen du asignatura hau, baina komunitate bakoitzak bere programa egiteko aukera ere badu. Hemengoez gain, Espainiako. Frantziako eta Europar Batasuneko erakundeak Iantzen ditugu eta erabili ohi ditugun liburuak ere ofizialki onartuak daude".

Arrazakeria, xenotbbia eta bazterkeria bultzatzen dutela-eta eginiko adierazpenen aurrean, berriz, lasai daude. "DBH-4an, esaterako, 17 urteko gaztetxoekin, ia monografiko bezala lantzen ditugu hauen aurkako jarrerak".

Biak ere ados daude Akademiak balorazio politiko bat egin duela adierazterakoan. Baina arlo honetan guztiz zehatza da Itziar "Bemiek jaldngo dute zergatik den, gu ez gara politikoak".

Deklarazioak hortik honakoak izan badira ere, Pakeren ustez, "komunikabideek 'bonboa' emateko aprobetxatu dute hau guztia. "Ezin gara joku horretan sartu. Guk gure arloan lan egiten jarraitu behar dugu".

Elkanizketa amaitutzat eman baino lehen honako hau garbi adieraztea nahi du Itziarrek: "Elgoibarko Ikastolako gurasoak oso lasai daude eta egon behar lukete, gainera. Alde batetik badakitelako guk zer lantzen dugun, eta bestetik, Ikastolako Historia Departamentua ere oso lasai dagoelako. Ez da historia esaten duten bezala ematen. Adierazpenak kontestutik kanpo daude. Guk Iehengo bidetik jarraituko dugu eta testu-liburuetan ere ez daukagu inolako arazorik".

## "Historia, zoritxarrez, askotan era guztietako politlkarlek beralen komenientilan erabili izan eta erabili ohi dute". MANU MARIAS. Institutuko irakaslea.

Manu Marias Institutuko historia irakaslea da eta adierazpen hauek ez zaizkio egokiak iruditu,"ez zaizkio inola ere egokitzen gure ikastetxearen jokabideari, ezta -gure ustez- Euskal HetTlko errealitate orokorrari ere".

BestaIde, akademikoek txostena ikasturte amaieran kaleratu dute eta honi buruz ere badu zerbait esateko Manuk: "Eguneroko gauza funtsezkoak izan ditugu eztabaidagai ikasturte amaiera zela-eta eta ez dugu gai hau bereziki eta sakonean aztertu. Gainera, ez da ahaztu behar Historiako Errege Akademiak argitaratutakoa txosten bat besterik ez dela. Honen aurretik ere egon dira hainbat erakundek burututako beste zenbait txosten, eta horiekin ez da horrelako iskanbilarik sortu".

Erabiltzen duten materialarekin ere inolako arazorik ez dutela dio: "Gure Institutuko Historia Departamentuak Administrazioak jarritako irizpideen arabera prestatzen ditu ikasmaila bakoitzeko programazioak, eta ikasleek erabiltzen dituzten liburuak ere legalki onartuta daude".



Beraz, historia gaur egun dagoen Iegeriaren arabera irakasten da eta alde honetatik, lasai egon behar dela dio: " Beraien seme-alabak gurekin dituzten gurasoak behintzat, ez luketе inolako kezkarik izan behar. Gainerako ikastetxeetan ere horrela gertatzen dela uste dugu. Beraz, gurasoak lasai egon daitezke, irakasleen profesionaltasunean konfidantza jarrita".

Orokorrean aztertuta, akademikoek arinegi hitzegin dutela uste du Manuk, gauzak hobeto neurtu behar zituztela.

## "Horrelako deklarazioak egin baino lehen gauzak analizatu egin beharko lituzkete". ELENA AIZPITAHTE. Pilar Ikastetxeko irakaslea.

Hezkuntza aldetik begiratuz gero, Pllar Ikastetxean Historiako Akademiaren txosten honi ez omen diote kasu handirik egin. "Horrelako zerbait adierazi baino lehen funtsezko arrazoiak eman behar dira. Ez da oso azterketa serioa izan. Alderantziz, oso partziaIa iruditzen zait", esan digu Elenak.

Txostenean agertu diren zenbait ideiak ez du Elena batere harritu, "orain ofizialki esan dute eta horrek harritzen gaitu gehienbat. Hau goitik datorrela, pentsatzen dugulako". Baina ez du uste azaldu dutena zuzena denik, "egoera politikoa edo soziala aprobetxatu dute".

Historiako irakasgaiari Pilarren zer nolako tratamendua ematen dien ere galdetu diogu: "Gai polemikoenak DBH-3 eta DBH-4-ko gaiak izaten dira, eta zein argitaletxe erabiltzen duzun ere desberdina da. Guk ikastetxean dauzkagun liburuak Estatu mailan erabiltzen direnak dira eta gero, komunitateetan, azpigai desberdinak eranzten zaizkie. Hemengo historia ere eman behar da".



Elenak garbi dauka nazionalismoaren aurkako jarrera bultzatzen dutela adierazpen hauek eta honekin lotuta galdera bat utzi digu mahai gainean:" Bihar edo etzi, hainbeste Europa eta Europar Batasuna entzun ondoren, zer ikasi behar dugu, Europako historia? Eta, Espainiakoa ere ahaztu egin beharko al da? Gonzalo Anes eta historia adituek egin duten plantemenduari jarraituz, ondorio bat litzateke. Hemen gauza batzuetarako unibertsaIa izan nahi da baina beste batzuetarako ez".

# Debegesak Debabarreneko emakumeen langabeziari aurre egiteko programa jarri du martxan

## Proiektuaren helburua emakumeei lana bilatzeko bideak eskaintzea da

Debegesak, Debabarreneko Garapenerako Elkarteak, bailarako emakumeei lan merkatuan sartzen laguntzeko programa jarri du martxan. Europako Fondo Sozialaren dirulaguntza izango du proiektuak. Emakumeak langabezia gehien jasaten dutenak direla ikusita, Iana bilatzeko tresnak eskaintzea da programaren helburua.

Uztailaren 3an hasi eta urte bukaerara arte arituko dira emakumeekin lanean, eta lehenengo pausoa bakarkako eikarrizketak egitea izango da; horrela, bakoitzak dituen beharrak zein diren jakingo baitute.

Emakume batzuek beste norbaitentzako lan egin nahi dute, eta hauen eskura jarriko dira lan merkatuan sartzeko tresnak. Bakoitzaren beharrak ikusi ondoren, ernakumeen bakarkako jarraipena egingo da eta baita taldekako saioak ere. Bestalde, badira norbere kontura lan egin nahi duten emakumeak ere, eta hauen lana indartzea da beste heIburu bat. Programako arduradunen asmoak laguntza teknikoa ematea eta bakoitzaren proiektuaren bideragarritasun plana egitea dira.



*Emakumeek ezezik enpresariek beren aldetik ere zerbait jarri behar dute emakumeei ahalmen profesionalak azaltzeko aukera emanez.*

Baina ez da aski emakumeek lanerako gogoa erakustearekin. Emakumeak lan munduan gizonezkoekiko berdinak izateko enpresariek beren aldetik ere zerbait jarri behar dute, emakumeei ahalmen profesionalak azaltzeko aukera emanez. Izan ere, emakumeak askotan baldintza eskasetan aritzen dira lanean.

Programa honetan parte hartu nahi duten emakumeek Debegesara (Rialtoko eraikuntza. Eibar) jo dezakete edo 943 82 01 79 telefonora deitu.

## • San Ferminetako entzierroak Kultur Etxeko pantailan ikusgai

Urtero bezala, Udaleko Kultura Sailak San Ferminetako entzierroak pantaila handian ikusteko aukera eskainiko du aurten ere. Horretarako Kultur Etxeko hitzaldi gelan ipiniko dute pantaila eta nahi duenak zuzenean, goizeko 8:00etan zezenak izango ditu ikusgai. Beraz, entzierroak gustuko dituenak uztailaren 14ra arte Kultur Etxean izango du zita goizero.

# Danobat taldeak "Made in Euskadin esportazio saria irabazi du

## Produkzioaren %70a esportatzen du Danobat taldeak atzerrira

Danobat taldeak `Made in Eus kad saria eskuratu du. Izendapen honek iazko esportaziorik onena saritzen du. Ibarretxe lehendakariak Euskal Enpresaren `Gatta' deitutako jaian eman zion saria `MondragOn Corporacin Cooperatiba' taldeko kidea den enpresa honi. Iazko fakturazioan kanpora saldutakoa kontutan hartzeaz gain, sari hau emateko urtez urte kopurua mantendu behar dela adierazi digute Danobaten. Beraiek produzitutakoaren %70a esportatzen dute, bataz beste. Danobat taldeko Ana Urkizak adierazi digunez, "guk ez dugu sariak irabazteko lan egiten, baina horrelako gauzak jasotzen ditugunean gure lanaren errekonozimendu bezala hartzen ditugu. Dena den, datorren asterako ahaztuta izango dugu, eta enpresako dinamikan lanean jarraituko dugula uste dut, azken finean gure helburua lana ahalik eta ondoen egitea baita".




*Euskal Enpresaren Gauajaianjaso zuten Danobateko ordezkariek "Made in Euskadi" saria.*

## Probaleku berria inauguratu dute San Pedroko jaietan

Ekainaren 29an hasi eta asteburu guztian zehar jaietan izan dira San Pedro bailaran. San Pedro Eguna aprobetxatu zuten probaleku berria inauguratzeko. Extremaduratik ekarritako haniekin egin du Antonio Abendibarrek 264 $m^2$ko probatokia. 28 metro luzeko eta 5 metro zabaleko plaza dauka eta "Eliza Osteko Probalekua" izenez bataiatu dute. Bertan, asteburuan idi-demak ikusteko aukera ezin hobea egon da. Herri kirolez gain, musikak ere izan du Iekua San Pedron, eta trikiti doinuak jarri zituzten Allur eta Narbaizak, Ansorregi eta Larrafiagalc, eta Felix eta Larrañaga bikoteek. Bertso afaria eta igandeko zaldi lasterketa ere arrakastatsuak izan ziren. Eguraldia izan dute lagun San Pedroko auzotan̄ek eta jaiak giro onean igaro dituzte.





## Pirineoetara irteera egin dute 14 emakume elgolbartarrek

Elgoibarko hainbat emakume mendizalek ineera bat egiten dute urtean behin Pirineoetara. Aurten 14 emakume elgoibartar, eibartar bat eta Elorrioko bat Echoko bailaran izan dira eta Castillo de Hacher, 2.400 metroko mendia, igo dute. Hecho herrian lo egin ostean, goizean goiz atera ziren mendira, bazkal ondoren berriz bueltatzeko. Esan digutenez, datorren urtean ere berriz antolatuko omen dute horrelako irteeraren bat, eta aurtengoa hezalako eguraltlia izanez gero, dudarik gabe gainera.

## Lanbide Heziketako 106 ikaslek amaitu dituzte ikasketak IMHn

Lanbide Heziketako hamargarren promozioko 106 ikaslek ikasketa amaierako titulua jaso dute. Mekanizatuak, Mekanizatuen Produkzioa, Proiektu Mekanikoen Garapena eta Ekipo Industrialen Mantenimendua espezialitateak dituzte. Ikasitakoa enpresetan praktikan jartzeko aukera izan dute eta batzuk Alemania eta Italiako lantegietan aritu dira. Ekitaldi hau izan da Jose Rejoren azken agerraldi ofiziala, orain arte IMHko Zuzendaria izan denak kargua utzi eta Joxean Egañak hartuko baitu bere lekua. Egun hau aprobetxatu zuten IMHko lankideek Rejori agurra egiteko, eta afari baten bueltan hainbat oroigarri eman zizkioten.






## Herri institutuko 208 ikaslek jaso dute Ikasketa amaierako diploma

Herri Institutuko Batxilergoetako eta Heziketa Zikloetako 208 ikaslek ikasketa amaierako diploma jaso zuten joan den ostiralean Mekanikako Areto Nagusian. Bertan, ikasleez gain, irakasleak eta gurasoak ere elkartu ziren eta diplomak banatzera Jasone Osoro kazetaria eta idazlea, Unai Osa txirrindularia eta Zuhaitz Gun̄utxaga, Realeko futboIaria joan ziren. Hiru gazte hauek institutuan egin zituzten ikasketak. Kurtso amaierako diplomekin batera ohorezko matrikuIa ere jaso zuten 8 ikaslek.

# Ikustu al dituzu San Fermineetako entzlerroak?



**CRISTINA CID**
28 urte, etxekoandrea

Bai, goizean jaikitzen naiz ikustera. Badago jendea zezenen aurrean ibiltzen dakiena eta zezenari egiten dizkioten keinuak eta nola eskibatzen dituzten ikustea gogoko dut.



**DAVID TEJERO**
30 urte, rnusika irakaslea

Egunero jaikitzen naiz. Zuzenekoa eta errepikapenak ere ikusten ditut. Behin Iruñera joan eta zalantzak izan nituen irten edo ez, baina azkenean zezen plazan geratu ginen.



**CARLOS MORENO**
43 urte, espezialista

Grabatu eta gero ikusten ditut. Ateratzen direnek badakite zein arrisku daukaten eta niri ea zezenak norbait arrapatzen duen ikustea gustatzen zait.



**MARIA JESUS GARATE**
52 urte, etxekoandrea

Ez, ez jataz gustatzen. Penia ematen dia jendia korrika ikustiak eta derrepentian jausi eta lurrian ikustiak. Onik ere ez dia eitxen.



**ANGEL SANCHEZ**
44 urte, pintorea

Laneko ordutegiak lagatzen badit zuzenean ikustea gustatzen zait. Ni zezenen lurrekoa naiz, Salarnankakoa, eta zezenekin zerikusia duten gauza guztiak ditut gogoko.



**MAITE REMENTERIA**
31 urte, diseinatzailea

Ez, normalian ez, oso goizao izaten dia eta ni bastante alpena naiz goizetan. Gainera, sufridu eitxen dot, segiduan nerbiosa ipintzen naiz. Berez ez naiz oso


i 11 41D
5
KAFETEGIA
943 74 42 65

[BOUTIQUE DEL PAN
Enpanadak Enbutidoak
Baserriko ogia Bolleria
Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 943 74 3392)

- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!

IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

9thprkeopadowtot ~tedvd4416 cotetelept.
Zatoz info
Tel: 943 74 10 11

# Txiki BARREN

**LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 65. GEHIGARRIA**




Argazkikoak Ikastolako 5. mailako ikasleak dira. Erretratua Argiiianoren Zarauzko sukaldaritza eskolara egindako bisitan atera zuten. Bertan plater goxoak prestatzen erakutsi zieten eta bide batez, ikasitakoa praktikan jarri zuten. Ondoren, nola ez, platerekoa dastatu eta gustura itzuli ziren etxera. Ez dakigu etxean sukaldean arituko diren, baina egun batez behintzat *Argiriano txikiak izateko* aukera eduki zuten eta baita apobetxatu ere.

## Txistea

Patxada ederrean zelaian etzanda daude bi mexikar, eta batek esaten dio besteari:

- Aizu, manito; brageta zabalik al dut?
- Ez, manito!

— Tira ba! Orduan beste egun batean egingo dut txiza,



# Jakitunen eskutik

## Udalekuak, lehen aldiz etxetik kanpora

t jdaran gaude eta eskola umeek oporrak hartu zituzten udara heltzearekin batera. Gero eta haur gehiago dira opor egunak aprobetxatuz udalekuetara joaten direnak. Askorentzat udalekuetara lehen aldiz joatea gurasoengandik aldentzea da eta zalantza asko sortzen zaizkie umeei joan ala ez erabakitzeko orduan.

Gurasoek joateko proposamena luzatu orduko askoren erantzuna ezezkoa izan ohi da. Gurasoek, egun batzuetarako bada ere, etxetik bidali nahi dituztela uste baitute. Baina proposamena lagun minenak eginez gero, gauzak asko aldatu ohi dira. Lagunek beraiekin egun batzuk etxetik kanpo pasa nahi dituztela pentsatzeak eta egun horiek ongi igaroko dituzten usteak animatu egin ohi ditu haurrak.

Udalekuetara lehen aldiz joaten diren ume gehienek beldurra izan ohi dute, agerian edo ezkutuan, baina beldurra. Izan ere, dena da ezezaguna eta ez dituzte gurasoak aldamenean izango arazoren bat izanez gero. Baliteke ondoren oso pozik itzultzea, baina amari eta aitari agur esan behar hori gogorra izaten da.

**Proba txiki bat da haurrentzat eta norbere buruarekin hobeto sentitzeko baliagarria izaten da**

Lagunekin joanez gero, gehienetan hobeto pasatzen dute. Arazoen aurrean elkarri lagun diezaiokete eta esperientzia edo abentura berriak elkarrekin bizitzea beti da pozgarria. Proba txiki bat da beraientzat eta norbere buruarekin hobeto sentitzeko baliagarria izaten da, heldutasunera iristeko pauso bat dela esan genezake.

Udaran familiarekin atsedenean egon beharrean beste leku batera joatea bere kabuz erabakitzen duenak, nahi duelako izaten da, etxekoak gero ere han izango dituela uste duelako. Baina haurrak nahi ez badu ez da komeni derrigortzea. Etxetik kanpora joateko prestatuta egon behar da, eta urte baten nahi ez badu, hurrengorako beharbada lagunen kontuak entzunda sartuko zaio joateko gogoa.

Beti ere udaleku bat aukeratzeko orduan kontutan hartu behar dira: adina, denbora, lagunak, ekintzak... Zenbat eta haurraren gustukoagoak izan, orduan eta hobe. Udalekuetan beti ikasten dira gauza berriak eta interesgarriak, eta gehienetan urteak pasatu arren gogoan izaten dira umetan udalekuetan pasatutako egunak.

Iturria: Mujer **de hoy**

## Zer iritzi daukazu ......0.4adadowt ri buruz?



AU4 ‹.42c ₃₁Z# .41«,14. A41,4&44 Izt tobb 44444h. a4 44414 , t4% e4e. 4244011,44.

OIHANE GOMEZ, 8 urte



G00. a4 444440.4 ,te.;4'44,0, a4 44..10,4t44, &41-444£414... kmAde.

Gehiago birziklatu beharko genuke.

CARLOTA CASTRILLO, 11 urte.



14444444 044 b24444 /4, /420144~ 440 €4,4Oth

JOSU ESPILLA, 7 urte



LISIERIT7
ALIRILILAGA
13 urte

# Galde debalde

1 Zeri diozu beldurra?
2- Nor izan nahi zenuke?
3 • Desio bat.
4 • Zer egingo zenuke alkatea bazina?
5 • Nori idatziko zenioke eskutitz bat?
6 Beti gordeko duzun opari bat.
7- Zein da zure lagunik onena?



IlrJIGO
AMESE
urte

1— Armiarmeri.
2- - Julia Roberts, oso famatua dalako.
3- - Pozik bizitzia.
4- - Parke gehixo jarriko nitxuzke herrixan.
5- - Brad Pitt aktoriari.
6- - Komunixoko figuria.
7- - Esther, elkarrekin barre asko eitxen dogu.

1- - Pelikula beldurgarrixei.
2- - Indiana Jones.
3- - Kotxe deskapotable bat eukitzia.
4- - Agindu.
5- Aspaldiko lagun bati.
6. - Game Boy-a.
7- - Joseba Tamayo.

## Zer da *liburua* ..............................?

### Kico Lcurz 7 UR rr



Nire lagunik onena da. Liburuak asko ikasten lagundu dit.

### IZARO ULT11131,* 7 urte



Liburuei esker gauza asko ikas daitezke, eta i rakurtzeko eta ikasteko balio dute.

### OSCAR MARTISIEZ 13 UNIFF



irakurtzeko balio duten orri idatziak.

### LLIENA LASCURAIN 13 urte



Bigarren maisua **da**, **asko erakusten digu. Batzutan interesgarria da, baina** beste batzutan oso aspergarria.

### ASSOILA 111 URTU



Irakurtzen ari zarenean abenturan sartzeko tresna.

### ION CA13111LOSIDO 11 urte



Irakurriz denbora pasatzeko erabiltzen den gauza interesgarria da liburua.

**ERANTZUNAK: 1-Kuboa** eta paia **2-** Zein da zure jolasik gustukoena? 4- Magnetofoia, zerra eta eskutitza.

.pciop ouoli l!puou ola
np za
lopoci uei!ea zuu
np **za 11.101.1V —**

**.01110199 0.13 11DZ1JOLI**
**109** ola np zi
jouzici InoLi op

**IDUerlp 11 04LDSO**
ounznp ualose
acio6 uoz! )llioLio
olap Joz ole olap Jaz —

'1311111ZpiDuiSV **4.**

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| V | 1 | | 3 | | O | 3 | 1 | V | d | V | |
| | | H | | 1 | V | 1 | | | O | | |
| O | 1 | | | V | | H | 3 | | O | V | |
| | | V | | O | | V | | | 3 | 8 | |
| | 3 | n | | | | | 3 | V | O | | |
| | | | H | fl | | V | | | d | | |
| O | N | 3 | | Z | 1 | | H | | | N | V |
| | 1 | 1 | | V | | | | | | | |
| N | | O | 1 | | | O | | | 1 | | |
| O | | | Z | | s | n | | O | | 3 | 1 |
| | O | | O | | | | N | V | | 1 | V |
| O | d | O | d | | H | | n | | | | |



**v11130⁹**
**biot₁₃₁ VNIREJU**
**V1:193Z vmntilso V)10d**
**VZ1SVH V3⁹°I¹**

**N113)11:11/d0OZ** **3.**



,zjou ugzwo
uNxin6 oupq 'zapcppo
uolos-clos linp ol0606
oalsoiol uolazno6
aasaq '9.19 0101.1
'oriap ual!6a o6c9a6
nzpojsa ou!oci uoasolol
I4!oz uaz4Disne oaij68
olo.0 ·olopd-9s3„
**opn 9**
**VNY03 IvNn**

·zampo ouaJon6ox
ola ornol 'alzapp
1.1!6a sohol aiseo
uopaq uooJanoi ·z!ou
uazoo yuoro uoinzioci
'zeuopno za Ipoienoi
uoexie oujog 'op
clijo6seJaiu! oso '1D9DX„
**emn L** l
**ODNV11:1 V113HS**



¿..........................................................................



**niappth Jez** **2.**

**i,nD4 Dp Jez** **1.**

# j'apausia ziazo losochuoquaa

41111i •=11L- 17.1111

# SAÑ DARToloMieth

## BAZKALTZEKO

**1. MENUA** 2.000 pt,

- Entsalacia mistoa / Marmitakoa / Entsalada errusiarra
- Okela egosia tomatea eta piperrekin / Xerra patatekin / Bakailao eta pikilloen rebueltoa
- Ardoa + Postrea + Kafea

**2. MENUA** - 3.000 pta

- Toletxe entsalada / Entremesak / Rebueltoa
- Bakailaoa Bizkai erara / Atuna tipularekin / Entrekot-a / Konfit-a

Ardoa + Postrea + Kafea

## AFALTZEKO

- Entsaladak
- Kazuelitak
- Bokatak

eta gavero... MARTXA!!

## Txiki egunean

- Entsatacia mistoa
- Marrnitakoa ec-io okela gtisatua

a + Postrea + Kafea

**- Af**

**1000 pta.**

TO LE TXE

ELGOIBARKO IZARRA

KLITUR ELKARTEA

## EIMINEAN

**• • • JAIOTAKOAK • • •**

- Alberto Liebana Infante (Ekainak 2)
- Gorka Luna Azpiazu (Ekainak 5)
- Paulo Larreategi Etxeberria (Ekainak 7)
- Eneko Gonzalez Urbiola (Ekainak 15)

**• • EZKONDUTAKOAK• •**

- Jose Alberto Armentia Albaran eta Maria Isabel Villena Camarero (Ekainak 17)

**• • • HILDAKOAK • • •**

- Bartolome Olivares, 73 urte (Ekainak 1)
  Loreto Mendikute Aizpitarte, 87 urte (Ekainak 11)
- Modesta Urkia Gorrotxategi, 87 urte (Ekainak 17)
- Elena Opakua Elorza, (Ekainak 19)
- Paquita Murua Gabilondo 62 urte (Ekainak 19)
- Bernabe Mugika Iturzaeta, 77 urte (Ekainak 20)
- Santi Lejardi Gabilondo, 86 urte (Ekainak 20)
- Jose Joakin Arribillaga Baribar, 80 urte (Ekainak 29)

# Maria Ansola Uria

## (1915-1991)



• 1915eko maiatzaren 4an jaio zen Mendaroko Garagartza bailarako Kortazabal baserrian. Hiru anai-arreba izan ziren, bera zaharrena. Madarixako eskolan egin zituen gaztetako ikasketak. Langile amorratua zen, gaztetatik gogor lan egin behar izan zuen baserrian.

• Askotan etOltZerl zen goizean goiz astoa kargatu eta herriko sahrientara. Alaia zen eta beti zegoen edozeinekin hitz egiteko prest.

• Lagun koadrilarekin Kurutzeta, Aitxola Gurutze edo Madarixako erromerietara joaten zen. Auzoko Gorrinaga baserriko Jose Aranberrirekin ezkondu zen. Maiorazka bezala joan zen ezkondu ostean, eta baserriko lanetan jarraitu zuen.

• Hiru serne-alaba izan zituzten: Jose Ma, Konsuelo eta Jeronimo. Erreinak eta suhiak beniz, Ma Angeles Uria, Inaxio Garate eta M" Karmen Mendizabal. Senarrak saskigintzan ere lan egin zuen jubilatu ostean.

• Familia giroko eta sinesmeneko emakume hau estimatua zen bailaran. Lizundia bailarak ez zuen elizarik eta bertakoak San Antolinera joaten ziren jaiero meza entzutera. Gaur egun desagertuta dago, baina ondoan egin zuten kaperara etorri ohi da jendea.

• 1968an Pedro Muguruza ibilbideko 25.zenbakira etoiTi ziren. Gustura bizi izan zen. Usetxe kale ondoko baratzan lan egiten zuen. Koadrilan Julepean' jokatzea, euskal kantak eta bertsoak ere asko atsegin zituen.

• Artean ongi zegoela, baratzera Ianera joan eta ondoeza sentitu ostean, bat-batean hil zen 1991ko urriaren 12an, 76 urterekin.

Juanito Gorostiza




# ETXEBERRIA

## Hileta zerbitzua

OSOA **eta** 24 ORDUKOA

KUTXAK **TRASLADOAK - KOROAK**

**NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan** ere bai.

Santa kIara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01

# ERRETRATU ZAHARRA



Aste honetan **Maria Victoria Jauregiri** esker argitaratu dugu erretratu zaharra. Plaza Txikian atera zioten argazkia ume talde honi, 1955eko udan. Hauek dira irrifartsu eta dotore bertan agertzen diren haurren izenak:

Atzean, ezkerretik eskumara: **Alfonso Guillo, Ramon Muruamendiaraz, Jesus Zubiaurre, Jose Ignacio Jauregi** eta **M.Victoria Jauregi.**

Aurrean, **M. Jesus Ubiria** eta **Ricardo Mujika.**



*ESKERTZA*

*2000ko uztailaren 2an, 97 urte zituela hil zen*
*FRUCTUOSA ARRIZABALAGA ARACAMAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





*ESKERTZA*

*2000ko ekainaren 29an, 80 urte zituela hil zen*
*JOSE JOAK1N ARRIBILLAGA BARAIBARen sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



## ● [1]Jo Ta Suar peñaren bazkaria uztallaren 1 5ean

`.10 Ta Sua' realzale pefiak bazkideentzako bazkaria antolatu du hilaren I5ean, Iarunbata, Aubixan. Bazkaldu aurretik Plaza Handian elkartuko dira guztiak eguerdiko 13:30ean. Herriko tabernetan poteo herrikoia egin ostean, Aubixara igoko disa, bazkaltzeko ordua 15:00etan baita. Bazkarira joan ahal izateko txartelak Lanbroa tabernan daude salgai. Txartel bakoitzak 3.500 pta. balio ditu eta eskuratzeko azken epea asteazkena, hilak 12, izango da.

## • Arrantza Txapelketa demekan, hilaren 9an, izango da Deban

`La Union' Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatuta, affantza txapelketa jokatuko da datorren domekan, hilaren 9an. Txapelketako arrantzagunea Deban egongo da kokatuta, "Danobat' lantegiaren parean, hain zuzen ere. Arrantza egiteko epea goizeko 9:00etatik eguerdiko 13:30ak arte luzatuko da. Tzen emateak, berriz, 1.000 pta. balio du. Izena eman nahi dutenek La Union Elkartearen telefonora dei dezakete (943 74 22 38), edo bestela honako telefonora hots egin: 907 49 86 22.

## • IC.D.13gelhapike afaria uztallaren 8an izango da

`Club Deportibo Elgoibar'rek urtero denboraldi amaieran egiten duen afaria bihar, hilak 8, izango da Harzubi jatetxean. Afarira joan nahi dutenek Kaia eta Urkiola tabernetan aurkituko dituzte txartelak salgai. Txartel bakoitzak 2.500 pta. balio ditu.

# Elliis zadiko Eskubaloi Federazioak ISanlorko taldeei eta jokalariei garaikurrak eman dizkie

### Denboraldi bukaerako ba7karian banatu zituzten sariak

Euskadiko Eskubaloi Federazioak denboraldi amaiera bakoitzean ospatzen duen batzarrean, urteko talderik eta jokalaririk onenak saritu zituen. Elgoibarko `Sanlo' Eskubaloi Taldeak emaitza ezin hobeak lortu ditu aurten maila guztietan, eta sariak ere barra-barra egokitu zaizkio. Pasa den larunbatean, hilaren 1 ean, denboraldi bukaeran egiten den afaria egin zuten `Sanlo'ko talde guztiek Harzubi jatetxean. Guztira, 200 tagun inguru bildu ziren, jokalari, entrenatzaile, guraso eta babesleak batuta. Aukera hau aprobetxatuz Eskubaloi Federazioak emandako garaikurrak banatu zituzten, argazkian ikus daitekeen tnoduan. Amaia Polok kadete mailako jokalaririk nabarmenenari ematen zaion saria jaso zuen; Andoni Armendiak kadete mailako goleatzaile onenari ematen zaion garaikurra jaso zuen; Fernando Etxeberria, jubenil muti-Ien delegatuak, beffiz, kiroltasun saria jaso zuen.



*Denboraldian zehar egindako lanarenfruituak jaso zituzten Sanlo Eskubaloi Elkarteko taldeek etajokalariek.*

PNEUMAX:
Jubenil mutilen mailako txapeldun.

■ TEKNOMEKA:
Kadete mutilen mailako txapeldun.

■ **IMH:**
Senior mutilen lurraldekako txapeldun.

• GAUR:
Kadete mutilen mallan Federazio Trofeoko Txapeldun.

• PAGOAGA:
Kadete nesken mailan Gipuzkoako Kopa Txapeldun,

• PNEUMAX: Jubenil mutilen madan kiroltasun saria.





## Ikastolako piletari gazteak Gipuzkoako Ixapeldun izan dira

Elgoibarko Ikastolako pitotari gaztetxoak ezin hobeto aritu dira Gipuzkoako Esku Pilota Txapelketetan, eta hainbat sari lortu dituzte aurtengo denboraldian. Eskolarteko jokoetan, alebin kategorian, bai neskak eta bai mutilak Gipuzkoako txapeldunak izan dira. Bestalde, Ikaspilotak antolatutako Gipuzkoako Txapelketan 5. mailako neska-mutilak hirugarren geratu direnez, Elgoibarrera ekarri dute txapela.

# EaffignIarpa nEzug Son Pedu 4o higarren zaldi lasIonka2

Ignacio Gorosabel eibartarraren `Tabor' zaldiak irabazi zuen proba





*Ezkerreko argazkian lehen hiru postuetan sailkatu ziren partehartzaileak ageri dira. Eskuinekoan, berriz, Ignacio Gorosabel irabazlea `Tabor' zaldiarekhz.*

San Pedroko jaien barruan, San Pedroko bigarren zaldi lasterketa jokatu zen pasa den domekan, hilaren 2an. Guztira 15 zaldik hartu zuten parte lasterketan. Partaide kopurua ikusita, antolatzaileek bi mulItzo egin zituzten eta multzo bakoitzeko lehen hiru zaldiak finalean aritzea erabaki zuten. San Pedroko baseliza inguratzen duten zelaietan prestatuta zegoen 800 metroko zirkuitoari 5 itzuli eman ostean, honako zaldizko hauek lortu zuten finalerako txartela: Mari Agirregomezkorta eibartarrak `Ribaflor' zaldiarekin, Carlos Vila eibartarrak `Atila' zaldiarekin, Iiiigo Arrizabalaga itziartarrak `BadiF zaldiarekin, Hilbete Galparsoro elgoibartarrak `Sua' zaldiarekin, Ignacio Gorosabel eibartarrak `Tabor' zaldiarekin eta Patxi Gorosabel eibartarrak `Zintzo' zaldiarekin. Beraz, azken lasterketa korritu ostean, 6 zaldizko hauen artetik atera zen azken txapelduna, Ignacio Gorosabel eibartarra, hain zuzen. Bigarren Iñigo Gorosabel sailkatu zen eta hirugarren, berriz, Patxi Gorosabel, Ignacioren seme gaztea. Lasterketaren ikusgarritasunak eta zaldien edertasunak erakarrita jende ugari inguratu zen San Pedro aldera eta partehartzaileek ez zieten hutsik egin ikusleei.

## Judo taldekoek lau Rilllgrezko domina lortu dituzte



*Kirol Elkartekoek denboraldi bikaina egin dute. Artxiboko irudia*

Duela 2 aste inguru Euskadiko eta Kantabriako judoka pilo bat elkartu ziren Usurbilgo kiroldegian. Elgoibarko Ibai Kirol Elkartekoak ere, noski, bertan izan ziren. Elgoibartarrek guztira, urrezko 4 domina lortu zituzten, eta baita meritu handiko 6. postu bat ere. Emaitza hauen bidez, judoka elgoibartarrek denboraldi osoan lan bikaina egin dutela ikus dezakegu. Dena den, lortu diren garaipen hauekin guztiokin, datorren denboraldia oraindik ere mamitsuagoa eta emankorragoa izango delakoan daude Ibai Kirol Elkarteko arduradunak. Honako hauek dira Usurbilen urrezko dominak lortu zituzten judokak: Ana Estevez, Jon Ander Pascual eta Aitor Gonzalez. Bestalde, Unai Fernandezek 6. postua lortu zuen.

## statlekodia

### Esku pilota

Sigmako Ixapelketa

Osoro/Rojo 0 - Ulazia/Arizmendi 22

Lotola/Arrillaga 22 Ubera/Katei **15**

Elustorido/GuemezB - Ugalde/Txurruka **18 (Aleh.)**

Ubera/Katei 22 - Ulazia arizmendi 12

Gerrika/Aitzibar **18** Urtubia/Lazarobaster 22

H.Larrea/J. Larrailaga 18 - M, Elustondo/A. Guemez 11

## AGENDA

### Esku pilota, Sigman

**11, astearlea**

**19:00 X.** Loiola/Arrillaga - Angel/Eneko

19:30 Karral/Lander - Ubera/Katei

**20:00 H. Larrea/J. Larrañaga I.** Ugalde/O, Txurruka

**13, osteguna**

19:00 AnsolalAgirrebeila - Gerrika/Altzibar

19:30 Angel/Eneko - Ulazia/Arizmendi

20:00 M. Elustondo/A. Guemez - I. Txurruka/K. Arrizabalaga

# 20 pelikula izango dira ikusgai udan aire libreko zinean

## Aurten pantaila berrian ikusiko ditugu filmeak

• 111 • • • • • 111 • • • • •

AIRE LIBREK© 7INEA

**14 OSTIRALA**
22:30 "Soñe con Africa"
**15 LARUNBATA**
22:30 "Toy Story 2"
**21 OSTIRALA**
22:30 "Mureielagos"
**24 ASTELEHENA**
22:30 "Ione igo zerura" (Euskaraz)
**25 ASTEARTEA**
22:30 "Tarzan"
**28 OSTIRALA**
22:30 "28 dias¯
**29 LARUNBATA**
22:30 "Stuart Little"
**30 IGANDEA**
22:30 "La Playa"
**31 ASTELEHENA**
22:30 "Campo de batalla: La Tierra"

**3 OSTEGUNA**
22:30 "Virgenes suicidas"
**4 OSTIRALA**
22:30 "Asterix y Obelix"
**5 LARUNBATA**
22:30 "Steepy Hollow"
**10 OSTEGUNA**
22:30 "American Beauty"
**11 OSTIRALA**
22:30 "La Princesa Monokone"
**12 LARUNBATA**
22:30 "Nadie conoce a nadie"
**21 ASTELEHENA**
22:30 "American Pie"
**22 ASTEARTEA**
22:30 "El corazon del gerrero"
**28 ASTELEHENA**
22:30 "Tango para tres"
**29 ASTEARTEA**
22:30 "Pokemon"
**30 ASTEAZKENA**
22:30 a marte¯

al ■ ■ 111 111 • III • - - 111 111 1111 • 111



tr.. '.
*jibreko zinean eskainiko dituzten hamabi pelikuldk elgoibarren estreinatu gabekoak dira.*

Udal Kultura Sailak 20 pelikula eskainiko ditu aire libreko zinean Plaza Handian. Datorren ostiralean, hilaren 14an, hasi eta abuztuaren 30era arte luzatuko dira emanaldiak. Pelikula guztiak gaueko 22:30ean hasiko dira. 12 ftlme Elgoibanen estreinatu gahekoak dira, eta une honetan beste herrietako antzokietan ematen ari dira. 8 pelikula, berriz, jadanik estreinatutakoak dira. Amerikar pelikulak dira nagusi, guztira 14 filme haitira estatubatuarrak. Bestalde, filme hat euskaraz eskainiko dute, "10-ne igo zerura" izeneko pelikula, hain zuzen.

**Pantaila berria**

Aurtengo berrikuntza aipagarriena, pantaila berria izango da. Lehengoa baino zertxobait handiagoa izango da, 11 m. luzeeran eta 5 zabaleran izango baititu pantaila berriak (lehengoak: 10 x 4'70). Bestalde, proiektorea berdina izango da, baina Iekuz aldatuko dute. Lehen zegoen txabolatxoan egon beharrean gurpildun gurdi batean egongo da, garraio lanak errazteko.

# Beltzal blues-puck talde elgoibartarrak bere lehen CD-a kaleratu du

## Diskoak Elgoibarko tabernetan daude salgai 1.000 pta.ren truke.

Jon Gurrutxaga, Lander Trinidad, Aitor Badiola, Tñigo Araujo eta Joseba Alonso elgoibartarrek osatzen dute "Arima Beltza" musika taldea. Orain arte, boskote honek egiten duen blues-rock musika entzuteko aukera bakarra beraien kontzertuetara joatea zen. Hemendik aurrera, taldearen jarraitzaileak zorioneko daude ordea, lehen CD-a kaleratu berri baitute. Oraingoz, 1.000 ale jarri dituzte salgai. 1.000 pta.ren truke eros daiteke CD bakoitza Elgoibarko tabernetan. Estudioko lehen lan hau `Tiobibo Records' estudioetan (Urrestillan) grabatu eta ekoiztu zuten urte hasieran. Argitaratzeko Iana, berriz, Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak-en esku egon da. Guztira 6 abesti sartu dituzte konpaktoan; 2 abesti instrumental eta euskarazko letrak dituzten beste 4 abesti. Hala eta guztiz, Arima Beltzaren musika zuzenean entzutea nahi duenak aukera ugari izango ditu udan. Hurrengo kontzertua Maulen eskainiko dute uztailaren 1 4an, baina gertuago ere izango da aukerarik blues-rock-az gozatzeko.




*Aitor Badiola, Joseba Alonso, Jon Gurrutxaga, Thigo Araujo eta Lander Trinidad elgoibartarrek osatzen dute `Arima Beltza' taldea.*

# SELEKTIBITA D

## hiru egunetako azterketa luzea



*Biz,itza oztopo lasterketa bat dela entzun izan dugu sarritan. Oztopo horietako bat pasa berri dute gure artera ekanï ditugun hiru lagunek. azterketa edo lasterketa benetan luzea, 3 egunetakoa. Nerea Sierra, Aini hoa Mateo eta Jose Perea institutuan aurkitu ditugu selektibitateko noten bila joan direnean. Hirurek gainditu dute eta pozik erantzun dizkigute azterketa erabakior honi buruz egin dizkiegun galderak.*

NEREA S I ERRA

BATXILERGO ZIENTIFIXOA

Azterketara urduri joan ziren, baina esaten dutea bezain zaila ez omen aie egin selektibitatea. "Institutuko klasiak amaitxu zianian selektibidadia preparatzeko kIasietara jun gera, baina bestela etxian ez dogu askorik ikasi. Kursuan zihar ikasiz gero atera leike selektibidadia. Kontua da nota ona ateratzia nahi badozu gehixao ikasi bihar dala, eta badao ordu pila bat sartu ditxuan jendia".



Nereak batxilergo zientifikoa egin du eta IMHn jarraituko ditu ikasketak. "Batxilergua aprobatziakin nahikua nakan eta selektibidadera eitxiarren jun nintzan. Gainera aprobau ein dot, ba hobeto". Ainhoak, berriz, arlo humanistikoa aukeratu du, eta garbi utzi digu elkarrizketan letrak zientziak baino gustukoago dituela, horregatik ikasiko du Magisteritza, atzerriko hizkuntzen berezitasunean. "Matematikako azterketia iruditxu jatan zailena, egixa esan gutxi gustatzen jatan asignaturia da". Jose Pereak Informatikako karrera ikasi nahi du, eta bide horretatik jarraituz gero, Fisika ikasi beharko badu ere, selektibitatean gai honekin izan zituen zailtasunak. "Urte guztian emandako gauzak sartzen dia eta bori gehiegizkua da". Historiarekin ere gauza bera gertatu omen zitzaion eta honetan bat etorri da bere bi ikaskideekin, itxuraz horrelako "totxoak" ikastea inork ez du gogoko.

JC

### ALDAKETAK

Selektibitatean hainbat aldaketa egon dira. Lehen bi egunetan egin ohi ziren azterketa guztiak, orain aldiz, hintan. Lehendabizikoan arratsaldez, higarrenean egun osoz eta hirugarrenean goizez. "Bigarren eguna oso astuna izan zan. Bi azterketa batera eman zizkiguten 3 ordutan eitxeko, baina bestela ondo moldau gera hiru egunetara ein daben aldaketa honekin".

Beste aldaketetalto bat kalifikazioarena izan da. Orain arte selektibitateko nota emaitza orokorraren erdia izaten zen, eta beste erdia batxilergoko nota. Orain, ordea, selektibi tateak c/c40 balio du. Ikasleei honi buruz galdetu diegunean zera erantzun digute: "Oindiok gutxio balio biharko luke, edo desagertu ein bibarko litzake, hola hobeto. Guri gutxi bajatu jaku notia, baina ezautzen ditxugu urte guztian lan pila bat ein, nota onak atera eta selektibidadian egun txar bat euki dabelako. edo nerbixuengatxik notia pila bat bajau jakuenak".

Bizitzako lasterketako oztopo hau arazorik gabe pasatu dute, eta amaieran saria ere jaso dute. Ikasbidaiara joan dira, Nerea eta Ainhoa Holandara eta Jose Parisera. Azterketako buruhausteak ahaztu eta oso ongi pasatu omen dituzte egun batzuk etxetik kanpora.



AINHOA MATEO

BATXILERGO HUMANISTIKOA

# AGENDA

## INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**
Anbulategia ........ 943 032610
Planning-a ........ 943 742950
Alkoholiko Anonimoak 943740385
D Y.A (anbulantzia) . 943 464622
Gurutze Gorria . . 943 743884
Mendaroko Ospitalea.. 943 032800
Odol Emaileak .. 943 743936

**GARRAIOAK**
Eusko Trenbideak. . 943 740442
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia ... 943 740898

**UDALA**
Euskara Zerbitzua. . 943 744366
Udal Kirol Patronatua 943 744415
Kultura Zerbitzua. . 943 742158
Mendaroko Udala... 943 756100
Ongizate zerbitzua... 943741008
Udaletxea .......... 943 741050
Udaltzaingoa. 943 741394

**BESTELAKOAK**
Elgoibarko Izarra ... 943 741626
Kiroldegia .......... 943 744415
Kontsumo Bulegoa 943 743088
Liburutegia ........ 943 743525
Musika Eskola 943 742145
Mintxeta .......... 943 744315
Parrokia ............ 943 740842
Postetxea .......... 943 741547
Gaztetxea .......... 943 743572

**ADINEKOEN ETXEAK**
San Lazaro Egoitza.. 943 740296
Zaharren Biltokia .. 943 740526

**IKASTETXEAK**
Haur Eskola . 943 74 21 41
HHI (EPA) . . 943 74 08 80
Herri Eskola .. 943 74 08 79
I.M.H. ........... 943 74 41 32
Iustitutua
Arreiturre . 943 74 80 19
Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
Ikastola .......... 943 74 44 41
Pilar kkastetxea. .. 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**
BARREN .......... 943 74 41 12
El Diario Vasco .. 943 74 40 73
El Correo Español.. 943 74 10 82
Zazpiki irratia .. 943 74 34 74
Egunkaria ........... 943 30 02 28
Gara ............... 943 31 69 99

## 7 ostirala

**8:00 SAN FERMINetako ENTZIERROAK ZUZENEAN**
Kultur Etxean (Pantaila handian)

18:30 **ODOL ATERALDIA**
Pedro Migel Urruzuno San

22:15 **ZINEA**
"GigolO"

## 8 larunbata

19:30-22:15 ZINEA
"GigoIO"

## 9 igandea

**18:45 GELATXOrekin DANTZALDIA**
Plaza Handian

19:30-22:15 ZINEA
`GigolO

## 10 astelehena

19:00 C.D. ELGOIBARen BILERA
Kultur Etxean

22:15 ZINEA
"GigolO"

## 11 asteartea

14:00 SENIDEEN
**MARTXA NAZIONALA**

## FARMAZIAK

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 8 | Yudego | Yudego |
| 9 | Yudego | Yudego |
| 10 | Zabaleta | Zabaleta |
| 11 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 12 | Escala | Escala |
| 13 | Bidasolo | Bidasolo |
| 14 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |

**ESCALA:** Rekaide, 1
Soraluze. Tel: 943 75 16 38
J. **IGNACIO FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4,
Garagarza.Tel: 943 75 61 42
**ZABALETA:** Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**
9 **igandea Idarraga**

## 13 osteguna

21:30 DIAPOSITIBA EMANALDIA
"Vietnam"
Hizlaria: Arantza Opakua
Toletxe tabernan

## 14 ostirala

**22:30 AIRE LIBREKO ZINEA**
**"Sofie** con Africa"

## ZINEA



**Zuzendaria: Mike**
**Antzezleak: Rob Sehneider, William Forsythe, Eddi Griftin.**

### Gigolo

Deuce Bigalowk akuarioak garbitzen egiten du lan. Malibu auzoan dagoen luxuzko etxe bateko akuarioa garbitzeko deitzen dutenean, goitik behera aldatuko zaio bizimodua. Antoine Laconte gigoloa ezagutuko du, eta haren bizimodua, luxuz eta emakume eden̄ez inguratuta zoragarria irudituko zaio. Antoinek etxea zaintzeko ardura Deuce-i lagako aio. Deuce nahiko traketsa da eta artelan baliotsu batzuk apurtuko ditu. Ordaindu ahal izateko gigol6 lanean hasten da.

## ● C.O. Elgoibar Elkartearen urteko batiarra astelehenean, hilaren 10ean

C.D. Elgoibar Elkarteak datorren astelehenean, hilaren 10ean, egingo du urteko batzarra Kultur Etxean. Arratsaldeko 19:00etan hasita honako gai hauek eztabaidatuko dituzte: balantze ekonornikoaren irakurketa eta onarpena, 2000/2001 denboraldiko kuotak eta galderak eta eskaerak.

## • Tffidoturisten irteera arlailaren 9an

Elgoibarko ¯Lagun" Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 9n, izango da XXVII. zikloturista irteera. Goizeko 9:00etan Txankakua zubitik abiatu eta honako ibilbidea egingo dute txirrindulariek. Ibilbide luzea: Elgoibar, Deba, Itziar, Zumaia, Getaria, Zarautz, Orio, Aginaga, Usurbil, Hernani, Fagollaga, Pagoaga, Goizueta, Usategieta, Leitza, San Anton, Berastegi, Ibarra, Tolosa, Bidania, Errezil, Azpeitia, Azkarate eta Elgoibar. Guztira 164 km. dira. Ibilbide motza: Eigoibar, Deba, Itziar, Zumaia, Getaria, Zarautz, Orio, Aginaga, Usurbil, Lasarte, Andoain, BiIlabona, Tolosa, Bidania, Errezil, Azpeitia, Azkoitia, Azkarate eta Elgoibar. Guztira 119 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

## • Senideen Martxa Nazionala asteartean, hilaren 11n, iritsiko da Elgoibarrera

Euskal Herri osoa zeharkatzen ari den Senideen Martxa Nazionala asteartean, hilaren 1 I n, iritsiko da Elgoibarrera. Eguerdiko 14:00ak eta 15:00ak bitartean espero da lekukoaren helduera. Behin Elgoibarrera iristen denean lekukoa 100 metrotik 100 metrora eskuz aldatuko da. Elgoibarko Elkarte mordoak hartuko du parte martxan, eta alor bakoitzaren izenean herriko pertsona batek eramango du lekukoa. Horrela, euskaltzaleen izenean Felix Etxeberriak eramango du Iekukoa; giza mugimenduen izenean, J.L Bellosok; eta kultur taldeen izenean, Haritz dantza taldeak. Talde hauetaz gain, zenbait auzoetako alkateek ere sinatu dute, San Roke, San Lorentzo eta San Pedrokoek, hain zuzen. Udaletik EA eta EHko zinegotziek eramango dute lekukoa.

## • Vietnam-i buruzko diapositiha emanaldia Toletxeny urtailaren 13an

Arantza Opakua elgoibartarra irakaslea da Instituan. Duela 3 urte, udako oporretan Vietnam ezagutzeko aukera izan zuen. Bertan pasa zuen Habetean, lurralde urrun eta ezezagun horretako bizilagunen ohiturak, kultura eta bizimodua ezagutu zituen. Datorren ostegunean, hilaren l3an, eskainiko duen diapositiba emanaldian bere bidaiari buruzko xehetasunak azalduko ditu argazki ederrez Iagunduta. Saioa gaueko 21:30ean hasiko da Toletxe tabernan.






# MERKATU TXIKIA

### Oharra

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

## Lana

• ESKAINTZA•

• Neska euskalduna behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Yolanda (Dendako orduetan deitu). tr 943 70 08 18

• Bi mutil gazte behar dira jaietan barran lan egiteko.sr 943 74 16 00.

• Abuztuan etxea zaintzeko pertsona bat behar dut.
tr 669 17 01 81 (Juani).

• Neska bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 12:ClOtik-13:30era eta 21:00etik auffera. Ir 943 74 28 93

• Publizitatea buzoneatzeko pertsona bat behar da. te 943 74 35 44

• Pertsona arduratsua behar da adineko emakumea zaintzeko.
v 609 94 69 40 / 677 76 65 48 (gauez).

• Emakumea behar da abuztuan arratsaldeko 16:00tik 21:00era Deban ume bat zaintzeko.
tr 943 19 12 10.

• Emakumea behar da abuztuan Deban bi ume zaintzeko 10:00tik-15:00era eta 17:00tik-21:00era.
tr 696 09 79 46.

• Neska behar da egun guztian zehar haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. a 943 74 45 57 (goizez) 943 74 36 97 (19:00etatik aurrera). Miren.

• Pertsona arduratsua behar da urte osoan zehar ordu batzuetan bi ume zaintzeko. Euskaraz dakiena.
Tr 626 23 75 70.

• Neska euskalduna behar dut arratsaldez etxeko lanak egiteko.
943 74 39 98.

• Pertsona bat behar da abuztuan elkarte bat garbitzeko.
ar 943 74 04 56. Maria.

• Sukaldaria behar da.
Te 943 20 32 91.

• ESKARA•

• Neska eskaintzen da uztailean arratsaldetan lan egiteko.
1r 943 74 06 75. Amparo (Arratsaldez)

• Neska euskalduna eskaintzen da partikularrak emateko, matematika etab, 17 943 74 11 34.

• Neska eskaintzen da uztailean edozein postutan lan egiteko.
tr 943 74 33 42.

• Neska euskalduna eskaintzen da udan umeak zaintzeko.
ar 636 04 70 28

## Salerosketak

• Seat 600 bat erosiko nuke. Ez zait inporta zein egoeratan dagoen. tr 610 54 71 16 (Enrique)

• Egurrarekin berotzen den Hergon Frantlin 82 tximinia, lasterketako bizikleta eta ispilu eder bat ditut salgai oso prezio merkean.
mr 943 74 17 15

• Garajea era lokal komertziala salgai Mendaron, Azpilgoeta kalean. 40 $m^2$. ze 943 75 50 26

• Astra GSI 16V txuria salgai, SS-AS. Aluminiozko Ilantak, egoera onean. 19:30tik aurrera deitu.
656 73 29 85

• SS-AU Opel Corsa salgai. Egoem onean. tr 943 75 50 35 (Imartol)

• Katu pertsa bat saltzen da. Ona da. tr 943 74 43 88/607 47 74 05 (Kristina)

## Etxebizitzak

• Apalategi auzoan etxe bat alokatuko nuke. Sukaldea eta logela bat altzari eta guzti. Aparkalekua ere badu. ir 943 74 19 68. Miren.

• Pisua hartuko nuke alokairuan datorren ikasturterako.
tr 943 74 07 85 / 656 72 12 22

• Pisua saltzen dut Plaentxin.
50 $m^2$. Amueblatua, eguzkitsua eta berritua. 5.800.000 pta.
v 943 75 21 36

• Herri erdian pisua salgai. 4. solairua da eta ez duigogailurik.
v 943 74 02 69.

• Alokairuan dagoen pisu bat nahi nuke Elgoibarren. Presa dut.
tr 636 37 58 66

• Apartamentua dut alokatzeko Benidormen. `Levante'ko honclartzara ematen du, piszina eta parkina ditu.
tr 943 74 38 27/943 74 20 31

## Partikularrak

• Kontabilidadeko klase partikularrak hartuko genituzke uztailean Elgoibarren. Posible bada, goizez. 943 74 30 30 (Estitxu).
72 943 74 26 14 (Ane).

## Bestelakoak

• Belarritakoa galdu nuen Artetxe eta Herriko Antzokia bitartean. Perla zuria eta brillanteak ditu,
mr 943 74 27 42

• Poltsa bat aurkitu dut Plaza Txikiko parkean. Barruan bi soineko daude. Udaltzaingoan dago.

• Errosarin kalekn portal batean barruan sandaliak dituen patinen poltsa beitz bat aurkitu duenak eraman dezala Udaltzaingora edo deitu 943 74 05 37 telefonora.

• Gameboyrako bi joku aurkitu ditut Arregitorre inguruan.
72 943 74 07 85.

Urrezko pultsera bat aurkitu dut.
tr 943 74 32 96

• Maiatzaren 5ean, norbaitek plazako arkupeetan, "game boy" bat aurkitu bazuen, mesedez eraman dezala Udaltzaingora. Eskerrik asko.

## Agurrak

• Zorionak Aintzane eta Abel lehen haurtxoa izan duzuelako. Muxu handi bat Leirentzat lantaldekoen partez.

• Zorionak Idigo, Jonathan, Javier, Osear, Ivan eta Reixori 4. mailara pasatu direlako. Gure partez.

• Zorionak **Nathalia** Barriada Alonsori. Familia osoaren partez.

## Agurrak

• Zorionak Imanol. atzo 4 urte bete zenimelako. Izeba Mirari eta tio Ifiakiren partez.





• Zorionak ehleko printzearentzat, hilaren 9an 3 urte beteko dituelako. Muxu handi bat familia osoaren partez.

• Zorionak Helene Alberdi Artolari, uztailaren 10ean urte bat beteko duelako. Familia guztiaren partez,





• Zorionak Itoitz, hilaren 9an 5 urte betetzen dituzulako. Gurasoen eta anaia Urkoren partez.

• Zorionak Iraitz, hilaren I7an 4 urte beteko dituzulako. Familiaren eta bereziki anaiatxo Enekoren partez.





• Zorionak Mikell, hilaren 10ean 2 urte beteko dituelako. Familiaren partez. Bereziki, lehengusu Borja eta Ignaeioren partez.




H
e
R
a
p

n
A



**Hondartzara joateko**
**gero ere izango duzu astia!**

Gauza ez da laYetzat rrerlIgkrien den ihe :hoddia tzea edo esku6gaYri duguY:bakarra jartzea. Nissaneko kontzesionario guztietan, priginalak diren ordezko piezek n lan egtten dugu sdilik. Gainera, prezioen Menu.bat' daukagu, itxia, salmenta osteko eragiteka guztientzat (eskulana eta BEZ Hau da kontzesionario ofizialen abantailetako bat. Besteak, begitnstakoak dira: espezializatutaku antileak zeititzu Profesionali eta 12 hilabetetarako konponketak bermatuta. Eta gainera, orain,ohizkoak ez diren prezioengatik, ines-hodi origtnalak jartzen ditugu zure esku. Behar baduzu, etorh zaitez zure ihes-hodia jaSotzera. Gurekin, idem bateko abantailak dituzu.



# Abantailak bete-betean.

| | |
|---|---|
| Ihes-hodia 11.700 pta.tik aurrera | Aurreko mote gailuak 22.750 pta.tik aurrera |
| Enbrage kita 20.200 pta.tik aurrera • | Balazta pastilen jokoa 7.000 pta.tik aurrera |

**OLASO KALEA, 23 TEL. 943 74 20 37 - 20870 ELGO1BAR**

**ALDIBI AUTCIAK,**

**ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 MONDRAGON-ARRASATE**

* Nissan Micra 1.0 rentzat salneurri gomendatua (BEZ- a eskulana el daude barne)

**NISSAN**

*IMATU ETA OO.ZA T*